

## Hernaniar askok Mediterraneoan edo Karibearen aukeratu dituzte oporretarako

■ Abuztuan joaten da jende gehiena oporretara, horregatik uztaila bukaeran bidaia agentziak gainezka egoten dira ■ Aurtengoan Marruecos, Turkia eta Asiako herrialdeetara joateko eskari gutxiago egon da ■ Agentzietara atsedena helburu duten familiak joaten dira batez ere.

ABUZTUAN joaten da gehiena jendea oporretara. Hori dela eta bidai agentziak ere bete-beteta egoten dira uztailako azken asteetan, oporretara nora joan konseju bila dabilen jende gainezka. Hernanin dauden bidai agentzietara jo eta jendea atenditzen diren langileei galdetu diegu hernaniarrek nora eta nola bidaiatzen duten.

### Hondartza bila


Jendea oporretarako hondartza bila joaten da, horregatik Mediterraneoan eta Karibearen izaten dira jende gehiena bisitatzen dituzten lekuak. Mediterraneoan batez ere, Katalunia eta Valentzia inguruan dauden turista inguruetara jotzen dute hernaniarrek: Benidorm, Peñíscola, Salou, eta abar. Bestela, Karibeko irlletara joateko oferta bila joaten dira bidai agentzietara eta prezioaren barruan ahalik eta zerbitzu gehiena izatea eskatzen dute.

Aurtengoan Marruecos, Turkia eta Asiako herrialdeetara joateko eskariak behera egin du. Urtero gertatzen da, jendeak atzera egiten du gatazka edota arriskuren bat izan dezaketean lurraldeetara joaterako orduan.

Eskandinaviako lurraldeetara joateko plana egin duten hernaniarrek asko dira, beste urteetan baino gehiago. Danimarka, Norvegia, Suedia edota Finlandiara joatea modan omen dago.

### Familiak eta aste beterako

Bidaia agentzietara era guzti-etako jendea joaten da, baina batez ere haurrak dituzten



Hondartza bila Mediterraneo edo Karibe aldera joateko ofertak eskatzen dituzte hernaniarrek bidaia agentzietan.

familiak, bikote gazteak eta lagun taldeak izaten dira agentzietako klienteak. Hauek leku batetik bestera, bazter guztiak ezagutu nahian ibili baino nahiago dute deskantsurako leku bat aukeratu. Jendeak gero eta garrantzia gehiago ematen dio lekuari eta bertako zerbitzuei (garraioa, janaria, hotela, denbora libre pasatzeko lekuak...). Jendeak zerbitzu onak eta eskura daudenak bilatzen ditu ahalik eta preziorik hoberenean.

Oporrak uztailan hartzea merkeagoa ateratzen denez, jendeak nahiago izaten du garai hori aprobetxatzea.

Baina gehienek beste erremediorik ez dute eta abuztuan hartu behar izaten dituzte oporrak. Horregatik abuztuko lehenengo bi asteetarako egiten dira opor erre-serba gehienak. Egonaldiak normalean 7 eta 10 egun bitartean izaten dira.

Garraioa aukeratzeko orduan, jendeak merkeagoak diren garraioak erabiltzen ditu normalean: ahal bada kotxez eta autobusez mugitzen dira gehienak. Irlletara edota urrutiragoko lurraldeetara joaten direnak hegazkina aukeratzeko dute bidaiazteko.

### Agentzietatik kanpo

Hala ere asko dira oporrak beren kabuz antolatzen dituzten hernaniarrek, batez ere gazteak. Horrelakoetan gida liburuak asko erabiltzen dira: akanpatzeko lekuak azaltzen dituztenak, paseatzeko rutak azaltzen dituztenak, eta abar. Orain gainera gero eta gehiago erabiltzen da internet, oporrak antolatzeko errezasun handiak ematen ditu eta. Bertan gauza ugari egin daitezke: era guzti-etako gidak irakurri, leku ezberdinetan egon den jendearen iritzia jakin, hegaldi merkeak erosi eta hoteletarako lekua erreserbatu. □

### HERNANIKO BIDAIA AGENTZIAK

**Hernani bidaiak**  
Urbietza 6  
943-330049

**Barcelo bidaiak**  
Izpizua 13  
943-550311

**Eroski bidaiak**  
Kardaberaz 26  
943-332087

**Halcon bidaiak**  
Plaza Berria 2  
943-554461

**Ecuador bidaiak**  
Gudarien plaza 6  
943-337080

 **Antziola-Motor**  
Salmenta eta taller zerbitzua

**Ford Mondeo**


3 aukera ezberdin, gusto ezberdinetzat:

- 4 ateko elegantzia
- 5 ateko deportiboa
- Wagon familiarra

**Etorri, ikusi eta aukeratu.**

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72  
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13



**Opariak** 

**Dekorazioa**

**Bitxiak**

**Denda berria zabaldu dugu. Zatoz ezagutzera.**

Elkano 35 - 20.120 HERNANI  
Tel.: 943 33 03 25

**Telemar** Itxastele, S.L.



**RENOVE PLANA**



Egundoko **ESKAINTZAK**  
Etxe tresnatan eta mugikorretan.

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60

## ERREMONTEA - CASINO KURSAAL TXAPELKETA

### Altuna Ilak erraz gaingitu zuen Iriarte (30-18), eta orain Eizagirre du zai, dezentez hezur gogorragoa

Partiduko lehen zatia berdindua izan zen, baina, gero 17-0-ko partziala egin zuen Altunak ■ Gaur, Aizpuru eta Bitoria neurtuko dira Galarretan.

BURUZ buruko Casino Kursaal txapelketako lehen partidua jokatu zen ostegunean Galarretan eta ez zuen kolore haundirik izan. Altuna Ila Iriarte baino gehiago izan zen eta 30-18 irabazi zion. Partidu hasiera borrokatua eta peloteatua izan zen, eta Garikoitz Altuna jokoan sartu zen arte min egin zion Iriartek. 9-8 Iriarte aurretik zela sakea berreskuratu eta hiru tanto egin zituen Altunak eta Iriarte nerbio jarri zen eta behera egin zuen. Altunak 17-0-ko partziala egin zuen eta partidua bideratuta utzi zuen. Hurrengo kontrarioa Jon Eizagirre izango du Altuna Ilak, buruz buru 3 aldiz txapeldunorde gelditua eta esperientzia haundiko erremontista.

#### Gaur, Aizpuru eta Bitoria aurrez aurre

Buruz buruko txapelketako bigarren partidua jokatu da gaur Galarretan. Pello Aizpuru urrestillarra eta Xabier Bitoria andoaindarra neurtuko dira. Aizpuru 20 urte badaramazki profesionaletan eta esperientzia haundiaz gain, palmare ederra du buruz buru. Txapeldun gelditu zen 1993an eta txapeldunorde hiru alditan gelditu da. Iaz ere txapelketa ona egin zuen Aizpuru eta finalurrekoetan



Garikoitz Altuna pelota bat hartzen osteguneko partiduan.

eliminatu zuen Zeberio Ilak.

Xabier Bitoria ere ez da edozein buruz buru eta iaz esaterako 3 partidu irabazi zituen, Eizagirrek eliminatu zuen arte. Profesionaletan aurten du 11garren urtea eta buruz buru parte hartzen duen hirugarren txapelketa.

#### Jaialdia 16:00etan

Buruz buruko Galarretako jaialdiko bigarren partidua izango da. Beste hiru partidua dira: 1) Larrea - Urrutia / Iribarren - Olazar; 3) Ezkurra - Auzmendi / Zeberio II - Eizagirre; 4) Zeberio I-Urretabizkaia II / Sarasua- Aizpuru II. □

## MUESTRAKO ZAKURREN EUSKADIKO TXAPELKETA

### Jose Luis Perez hernaniarrak 4 txakur sailkatu ditu, gaur Berantevillan jokatuko den Euskadiko txapelketarako

■ Gipuzkoako Kopa eta Gipuzkoako Txapelketa irabazi ditu Sultan de Ubarbu eta Begi de Ubarburekin ■ Sole de Ubarbu eta Rufo de Ubarbu ere sailkatu dira.

EUSKADIKO txapelketa jokatuko da gaur Arabako Berantevilla herrian eta Hernaniko Jose Luis Perezek lau txakur klasifikatu ditu. Gipuzkoako kopa uztailearen 13an irabazi zuen Sultan de Ubarbu txakurrarekin eta Begi de Ubarbu eta Sole de Ubarbu txakurak 3 eta 4garren gelditu ziren. Gipuzkoako txapelketan, berriz, Begi de Ubarburekin gelditu da txapeldun Perez, uztailearen 19an. Rufo de Ubarbu 3garren gelditu zen.

Euskadiko txapeldun gelditu zen iaz Jose Luis Perez, Begi de Ubarbu txakurrarekin eta aurten ere irabazteko esperantzak baditu. □



Jose Luis Perez klasifikatu diren lau zakurretatik hirurekin.

## ETXERAT ELKARTEA

### Hondartzetan enkartelada deitu du Etxeratek biharko, Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko

ETXERAT elkarteak enkarteladak egiten ditu Euskal Herriko hondartzetan urtero, abuztuko lehenengo igandean. *Euskal Presoak Euskal Herrira orain* da biharko enkarteladetako leloa. Hernani ingurukoak Orioko hondartzan

elkartuko dira eta zita 12:00etan autopistako zubi azpian egin dute. Hernanitik Oriora joateko zita, berriz, Atsegindegin egin dute goizeko 11:00etan. Etxeratek dei egin die hernaniarrei biharko mobilizazioetan parte hartzera. □

### Tranbia zaharraren ibilbidea egiteko aukera dago gaur, sortu zela 100 urte bete direnean

TRANBIA zaharra martxan jarri zela gaur betetzen dira 100 urte. Horren bueltan ekitaldiak antolatu dituzte eta gaur tranbiaren ibilbidea markatuko dute nahi duenak egiteko. Edadetuentsat txu-txu tren jarriko dute. Ibilbidea goizeko 10:00etatik 18:00ak arte egin liteke eta irteera Txan-

txangorri elkartearen izango du.

#### Erakusketa Astigarragan

Tranbiaren ibilbide, argazki eta bestelakoekin erakusketa dago Astigarragako kultur etxean eta bihar arte egongo da. Orduetgia: lan egunetan 18:00-20:30etara, eta jai egunetan 11:00-13:00etara. □

#### Juan Zabaleta Arbide

*Joxe Jabier Zabaleta Elozegi "Baldo" preso politikoaren aita*  
2003ko uztailearen 31ean hil zen, 88 urte zituela

**Urak dakarrena  
urak darama  
zuk emandakoa  
gurekin geratzen da.**

**ETXERAT**

Hernanin, 2003ko Abuztuaren 2n.

#### II. URTEBETETZEA

#### Martin Garmendia Isasa

2001eko abuztuaren 2an hil zen

Martinen senitartekoez, ezagutu zenuten guztioi gonbidapena luzatzen dizuegu, bere heriotzaren bigarren urteurrenean eskainiko diogun mezara etor zaitezten.

Urtebetetze meza bihar, igandea, abuztuak 3, goizeko 12:00etan, Floridako San Jose Obrero parrokian.

Hernanin, 2003ko Abuztuaren 2n.

#### ZERBITZUAK

##### ☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093  
► Udaltzaingoa: 943 333288  
► DYA: 943 464622  
► Autobusak: 943 556662  
► Anbulatorioa: 943 006666  
► Jokalari anonimoak: 943 331103

##### ☎ FARMAZIAK

► Egunez: Aizpuru  
Latxunbe Berri 11  
☎ 943 336077  
► Gaeuz: Aizpuru  
Latxunbe Berri 11  
☎ 943 336077



#### Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

**GAUR 16:00ETATIK AURRERA**

**ERREMONTE JAIALDIA:**

- part.: Larrea - Urrutia / Iribarren - Olazar
- part.: "Casino Kursaal" txap.: Aizpuru - Bitoria
- part.: Ezkurra - Auzmendi / Zeberio II - Eizagirre
- part.: Zeberio I-Urretabizkaia II / Sarasua- Aizpuru II